


**Goi
Mailako**

**Arte
plastikoak
eta diseinua**

Eskultura tekniketako goi mailako teknikaria



**Nafarroako
Gobernua**  **Gobierno
de Navarra**



**Fondo Social Europeo
Europako Gizarte Funtsa**
El FSE invierte en tu futuro
EGFk zure etorkizunean inbertitzen du

**UNIÓN EUROPEA
EUROPAR BATASUNA**

Eskultura tekniketako goi mailako teknikaria

Zure etorkizuneko bizibidea

Heziketa ziklo hau amaitzen duzunean, honako lanbide-jarduera hauetan aritzeko kualifikatuta egonen zara:

Balio estetiko handiko eta kalitate tekniko eta artistikoko eskultura-lan originalak eta objektuak egitea, proiektutik beretik edo eskaera profesional jakin batetik abiatutik.

Balio estetiko handiko eskultura-lanaren eta erabilera-objektuen prestaketa planifikatzea, alderdi estetikoak, formalak, funtzionalak, materialak eta ekoizpenekoak definituz.

Prozesuko faseak antolatu eta egitea, eragiketen segurtasuna bermatuz eta behar diren kalitate-kontrolak eginez, produktu amaitua lortu arte.

KONTUAN HARTU BEHAR DUZUNA

Titulazio hau duenak lana eginen du profesional autonomo moduan edo besteren konturako langile moduan eskultura-lanak egiteko proiektuekin lotutako artisau- edo arte-enpresa edo -lantegietan. Lana bere lanpostuari esleitutako eginkizun eta helburuen arabera izanen da eta beheragoko mailako profesionalek osatutako lantalde txikiak koordinatuko ditu.

Zeregin eta lanpostu nagusiak:

- Apainketarako, dekoraziorako eta eskulturarako elementuen ekoizpen artistikoko lantegiko arduraduna.
- Apainketarako eta dekoraziorako eskultura-elementuen obra-egilea.
- Apainketako, dekorazioko eta eskulturako eginkizunetarako obren proiektugilea.
- Ondarearen berreskurapen eta kontserbaziorako eskultura-elementuen obra-egilea.

ZIKLOAREN MODULUAK

- Marrazketa Artistikoa.
- Bolumena.
- Informatikako aplikazioak.
- Eskulturako materialak eta teknologia.
- Hustuketa eta moldegintzako lantegia.
- Harri-lantegia.
- Ingelesa I.
- Marrazketa teknikoa.
- Eskulturaren historia.
- Eskultura-proiektuak.
- Zur lantegia.
- Metalaren lantegia.
- Lanerako prestakuntza eta orientabidea.
- Proiektu integratua.
- Prestakuntza-aldi praktikoa enpresetan, estudioetan edo lantegietan.